

BITOR GARITAONAINDIAREN OMENALDIA**BITOR GARITAONAINDIAREN OMENALDIA**

Zaldibar 1976-III-6

Valentin de Lasuen

Bizkaiko Diputazioko Lehendakari ordezko jauna
Gipuzkoako Diputazioko Lehendakari ordezko jauna
Euskaltzaindikoko Lehendakari jauna eta euskaltzain
Durangaldeko Alkate jaunak

Jaun, Andre eta adiskide guztiok:

Artu egizue nere ongi etorri biotzekoena. Emen bildu gera, Garitaonandiko Bitoreri, beren jaiotzako mendeurrena ospatzeko. Zaldibarko herriaren izenean, esker mila.

Euskaltzaindiak, bere billera au Udaletxe ontan egiteaz, bai On Bitori eta bai gure herriari, guztiz oore andi eta estimagarria egiten dauskue.

Eta orain, jarri dausten gaiaz astera noa. BITOR GARITAONANDIA eta ZALDIBAR, gaiaz. Baina emen, gero azalduko detan arrosoiagatik, esan behar det, beste zati bat ezarriko deusat, ZALDIBAR eta on BITOR...

Gaur ehun urte, Zapatariko etxean, goizeko bederatziretan jaio zan mutiko bat, Juan Bitor izena jarri eutsen. Bere gurasoak Balerio eta Mari Joxepa. Bere aita, herriko eskola maixua. Zortzi urte inguru zitualarik eta amaika urterarte bere aitarekin eskolan, eta musika-solfeo ikasten Durangon.

Amaika urtekin Orduñara batxiller ikasten. Opor aldie-tan, Bitor Zaldibarrera, bere herritxora. Gero Salamancara abade egitera. Andik, berdin, opor aldietan bere herrira, biri-

garro bat bere egaztadak egin eta gero, bere basoko zuhaitzera biurtzen dan legez.

Apaiz egin ondoren, or doa Zamorako Eliz Nagusira Tenor abeslari. Baina 29 urte inguru zituan berriro be Zaldibarrera itzultzen danean. Oraingoan Euskalerrian geratzeko. Ainbeste maite duan bere jaioterria berak barruan zituan ames guztiendako txikiegi da, eta irten beharra dauka. Or doa Donostiara eta ekiten dio bere lanari. Sekundino Esnaolak Orfeón Donostiarra elkarteetan lan egiñaz. Musika lanak idazten ekin eban eta or datoz "OR ZAUDE JESUS" "EZ DAGO ZERURAKO" "NEGARREZ SAGRARIOAN" eta abar, eta abar. Baina On Bitor, bitartetxo bat lortzen badau, or doa Zaldibarrera.

Kazetaritza izan zen beste arlo garrantzitsu bat. Nork ez dau irakurri edo entzun ARGIA asterokoa, eta ARGIA egutegia? Bera izan zen sortzaileetako bat eta bera Zuzendari, sortu zanetik, il arteraño.

Baina on Bitor, barriro Zaldibarrera, Andres Donearen jaia zala ta, Meza Nagusiko itzaldia egitera.

Ekin dio bere antzerki lanari. Argitaratu dau *Iziartxo*, Gipuzku eta Bizkaian ainbat aldiz egingo zan antzerkia. Donostiako Udaletxeak saritua. Geroago "Aitona ta Billoba", eta jarraian "Ongillearen saria", makiña bat txaloetaratako antzerkiak. On Bitor egun batzuk pasatzera Zaldibarrera barriro be.

Euskal Literatura eta musikaren alde egiten duen lan guztiagatik, Euskaltzain laguntzaile izendatu dabe. Merezi zuen bai on Bitorrek oore ori.

1.929 urtean, il zen Donostian, 53 urte zituelarik.

Eta orain dator asieran esan detan lez ZALDIBAR eta on BITOR. Zergaitik?

Ikusi doguz on Bitorren ekintzak, bere bizitza laburrean: musika eta abesbatzak, euskal idazkaritza eta antzerkia.

Begira nola gaur Zaldibarren iru ekintza orrek nola dabilzan. Argi eta garbi dago, Garitaonandiko Bitorrek azia zabaldu zuana.

Bai guda aurretik eta bai ondoren be, bere antzerkiak egiñak dira. Orain dala bost-sei urte, Gerediaga Elkarteak eratu ta Zaldibarren egin zen antzerkiari buruz billera garrantzitsu bat.

Euskal izkuntza eta idaz lanetan, Zaldibarren egon da eta badago zaletasun eta indartxo bat. Gazte talde bat indartsu, eta aurretik Maortua anai arrebak, zerbait egin zuten.

Musika sailean berriz, KORAL ELKARTEAK, ogeita hamar urte onetan zer egin duan badakigu. Ez da egun asko Bilbon abeztu dutela.

Pozik dagoz, zerbait Zaldibarrek Garitaonandiari zor dion zatitxo bat ordaintzen asiak gerala ikusiaz.

Ez alda izango au, on Bitorrek zabaldu zuen aziaren landarea?

Eskerrik asko.

**“REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA,
EUSKALTZAINDIA”**

Zaldibar, 1976-III-6

Fr. L. Villasante

Euskaltzaindia tenía prevista para este día una sesión pública, a realizar aquí en Zaldívar, como homenaje a la memoria de D. Víctor Garitaonaindia, hijo de este pueblo, por cuanto hoy precisamente se cumple el centenario de su nacimiento. Y tal como se programó se piensa realizar et aato. Pero no podemos menos de mencionar también un fausto acontecimiento, que ha de constituir un hito en la historia de nuestra Institución y que ha tenido lugar en los próximos inmediatos días que han precedido a esta sesión.

Hacía tiempo que nuestra Academia se hallaba necesitada de que se hiciera la adecuación de su personalidad jurídica a la situación legal actual; y las gestiones realizadas para ello han tenido el resultado más pleno, feliz y halagüeño que cabría esperar. S. M. el Rey D. Juan Carlos I, por un decreto expreso, ha reconocido el carácter oficial y legal de esta Institución, así como sus Estatutos. Es un gesto de la más alta significación, de aceptación de esta realidad que es la lengua

vasca, traducido en un hecho concreto que estimamos transcendental y preñado de consecuencias prácticas. Gracias a este respaldo oficial, Euskaltzaindia podrá trabajar de aquí en adelante por los mismos fines por los que ha trabajado hasta ahora, pero con una autoridad, personalidad y eficacia de que antes carecía. La desde ahora "Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia" puede velar y dar la cara por el euskera con otra personalidad y con un rango incluso oficial, gracias a este respaldo. En nombre mío y de la Corporación agradezco a S. M. este gesto, que el País sabrá estimar en lo que vale.

Por cierto que fue el egregio abuelo del Rey actual, S. M. Alfonso XIII el que inauguró personalmente el I Congreso de Estudios Vascos celebrado en Oñate en 1918, Congreso en el que se fundó la Academia hoy expresamente reconocida por su augusto nieto. En el discurso inaugural de dicho Congreso S. M. Alfonso XIII animó a los vascos a guardar, cultivar y transmitir a las nuevas generaciones el euskera. Como hemos dicho, una de las realizaciones del dicho Congreso fue la creación de Euskaltzaindia. Esta desde entonces no ha cesado de trabajar, en la medida de sus posibilidades, en pro de estos objetivos. Ahora su ilustre nieto, coincidiendo en la misma línea que su abuelo y abundando en los mismos sentimientos que él, ha otorgado un pleno reconocimiento legal a Euskaltzaindia para que más efectiva y eficazmente pueda laborar por estos mismos objetivos. Creemos que esta medida reportará al País frutos benéficos y positivos tanto en el or en lingüístico como en el de la convivencia ciudadana. Por ello expresamos al Rey, al Gobierno y al Ministerio de Educación y Ciencia nuestro reconocimiento, satisfacción y gozo.

Siendo esta la primera vez que se reúne en sesión nuestra Corporación después de la aparición del mencionado Decreto, no podíamos menos de evocar aquí el hecho (En la sesión privada que ha precedido a esta pública se ha dado oficialmente cuenta a la Academia del fausto evento y ésta ha acordado expresar su satisfacción y reconocimiento al Rey y al Gobierno).

Por lo demás, el resto de la sesión pública discurrirá conforme al plan previsto, es decir, será un acto homenaje a D. Víctor Garitaonandia.

**BITOR GARITAONAINDIA JAUNA ETA EUSKARAREN
BATASUNA***Zaldibar, 1976-III-6**Fr. L. Villasante*

Balendin Lasuen Zaldibarko alkate jaunak ongi etorritzko hitzak zuzendu dizkio Euskaltzaindiari Zaldibarko herriaren izenean. Eta nik Euskaltzaindiaren izenean bihotz-bihotzez eskerrak bihurtu nahi dizkiot.

Joan den azaroan Lemoan bezala, orain, martxoaren lehen larunbat hontan hemen Zaldibarren batzarre agiri eta ospetsu bat egiten du Euskaltzaindiak. Eta bai bata eta bai bestea ere Bizkaiko bi semeri gorazarre bana eskeintzeko egiten ditu: Lemoakoa Eguzkitzari, Zaldibarkoa Garitaonaindia jaunari. Eta bi ospakizun hoiien tartean izan zen oraino beste bat, Donibane Garazin Barbier jaunari eskeini zitzaiona. Era hortara, euskera lantzen eta euskeraren alde lan egiten gailurtu direnen izenak ohoratu nahi ditu Euskaltzaindiak, eta hori egitearekin batean izerdi berria eman nahi dio euskal landareari, euskaldunon bihotzetan beti indartsu eta bizkor bizi dadin. Bai. Herriko euskerari laguntzeko eta indar emateko kezka honek darabil batetik bestera Euskaltzaindia jaialdi hauek antolatzen dituenen.

Bitor Garitaonaindia jauna nor zen, zer egin zuen eta abar esaten ez naiz hasiko. Ni neuk ez nuen jaun hori ezagutzeko zoria izan. Donostiako erromesak Arantzazura etortzen zirenean, hoiekin batean bera ere etortzen zela eta kantuan aritzen zela, hori Arantzazun esan didate. Musikalari, idazle, antzerkigile, "Argia" asterokoaren sortzaile eta abar izan zela ere denok dakigu. Gure Euskaltzaindiak 1925. urtean Garitaonaindia jauna euskaltzain laguntzaile izendatu zuen.

Nik puntutto bat bakarrik ukitu nahi dut, gaurkoa baita, eta hori ere oso ginetik eta laburzki: euskeraren batasunarena. Garitaonaindia jaunak Donostiako batzarre batean eman zuen bere iritzia hauzi hontaz, eta "Euskera" aldizkarian 1922an agertu zen. Eta geroago, ia hamabi urte geroago, Garitaonaindia iadanik hila zelarik, Azkue handiak bere "Gi-

puzkera Osotua" izeneko lana atondu zuenean, Garitaonandia jaunaren aburua hartzen du oinarri eta aitzakia bezala bere lan hortarako. Hala aitortzen digu bere estudio horren atari-atarian. Entzun ditzagun Azkueren hitzok: "En la asamblea celebrada en esta ciudad —San Sebastián— tomó parte, entre otros, aquel simpático y fecundo escritor vasco, hijo de Zaldúa, Víctor Garitaonandia, a quien en plena juventud llamó el Señor a mejor vida. Citaré textualmente sus palabras, que fueron publicadas en el tomo III, página 100 de nuestra Revista". Hitz hoietan Garitaonandia gipuzkoera osotuaren alde azaltzen da; baina gipuzkoera osotu hori zer den beretzat garbi eta zehazki adierazten du. Hona hemen Garitaonandiarren hitzok: "Idazle guzien euskera ori ez da izango gaur egunian itz edo idazten dan gipuzkoera, baizik osotua, apaindua. Orretarako, euskaltzainak lan egin bear dute. Artu, bai Bizkaiko ta Zuberoko ta bai Napar ta Lapurdiko izkelgi edo izkerak dituzten edertasun ta obekuntza bereziak eta gipuzkoar izkelgiari ezarri" (*Euskera* 1934-1935, 289). Eta lan hau egi-tera jarri zen, hain zuzen, Azkue.

Nik ez dakit zergatik den (hobeki esan, badakit, zeren ez baita hain gaitza jakiten), baina hauxen da egia: Bizkaitarrak izan direla euskera batuaren bultzatzaile handienak. Euskalkiz bizkaitar direnak, alegia. Bai. Hor ditugu, diodanaren lekuko, Garitaonandia, Azkue, Altube mondragoitarra, Eleizalde bergararra, Belaustegigoitia, Eguzkitza bera, Angeru Madariaga, Zabala-Arana, Urrutia, Larrakoetxea, Krutwig, Oskillaso, eta abar eta abar.

Harritzekoa irudituko zaio zenbaiti, baina hala da, eta hau ukatzerik ez dago. Arazo hontaz gehienik arduratu direnak bizkaitarrak izan dira.

Eta gauza honen arrazoa ulerterraza da, ene ustez. Bizkaiko euskalkia pixka bat berezia da eta bazterrekoa Euskal Herrian. Orduan idazle bizkaitarrak, bere euskalkiari zor dion maitasuna ezertan ukatu gabe, horrezaz gainera tresna edo mintzabide zabalago baten beharra sentitzen du, hots, Euskal Herri guztian onartua eta erabilia izango den tresna nahi eta behar du.

Eta hori ez da gure mendeko kontua bakarrik. Mogel handiak, esate baterako, bere lehen liburua "Confesio ta Comunio-

co Sacramentuen gañean Eracasteac" ez zuen bere jatorrizko euskalkian egin. Eta hain zuzen horregatik, liburu hori bizkaieraz egin ez zuelako, zenbait bizkaitarren marmarrak eta esamesak sufritu behar izan zituen eta bere burua zuritu beharrean gertatu zen. Hortarako orrialde guttitako liburuxka bat inprimarazi zuen, eta bertan hauxe dio: "Apenas se tuvo noticia en Vizcaya, que salía a luz una Obra bascongada y en dialecto Guipuzcoano, baxo del título de Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac, y que su Autor era un Cura de dicho Señorío, quando se suscitó una conmocción como general entre los Eclesiásticos Vizcaynos, con quejas amargas de haber sido preferidos los Guipuzcoanos. ¿Qué utilidad podemos sacar, se decían, de una obra escrita en un dialecto extraño e intrincado para nosotros? El autor podría dar razones poderosas de su proceder, o de la atribuida predilección, si fuera del caso el publicarlas" (*Nomenclatura de las Voces Guipuzcoanas, sus correspondientes Vizcaynas y Castellanas, para que se puedan entender ambos dialectos*).

Mogelek baditu bada arrazoi errutsuak jokatu zuen beza-la jokatzeko. Ez ditu hemen agertzen, baina konpreni errazak dira. Bere liburua Euskal Herri guztian errazago zabal zedin, errazago onartua eta ulertua izango zen euskera modu bat erabili behar zuen, eta arrazoi hori guztiz jatorra eta bidezkoa da. Beste aldetik, ez dago halako leize handirik euskalki bate-tik bestera; lau ttipikeria dira ulertezina sortzen dutenak eta neke guti bat hartuz aisa garai daitezke. Eta hortara doa Mogelen liburuxka hori: apaiz bizkaitarrek gipuzkera suerte hortan egindako libruak erraz uler ditzaketela erakustera.

Nolanahi den, kontu hau ez da oraingoa, aspaldikoa bai-zik. Baina gaur eguneon elkarren arteko har-emanak geroago eta beharrago eta hestuagoak direlarik, guztiontzat balioko duen tresna bat edukitzea noraezoko eta premia-premiazko gauza bihurtu da. Eta Euskaltzaindia euskera batu horren alde dago. Eta egongo ez balitz, ez luke bere zeregina eta bete-beharra beteko.

Badakit nik zer hoben edo akats egozten zaion euskera batu honi: herriko euskeratik aldendua dagoela, gauza asma-tua dela, konbentzionala edo artifiziala dela, eta abar.

Baina kontu hau hurbildik aztertzen badugu, laster jabe-tuko gara gauza batez: euskalki literarioak ere euskera batu

batzuk direla, konbentzionalki batuak, eta berak ere tokian tokiko euskera bizitik gutiago edo gehiago aldenduak daudela.

Bizkaiera deitzen den euskalkia, herrian erabiltzen den eran, ez dago batua, eta desberdintasun handiak ditu tokitik tokira. Zoaz Oinatira, eta gero Bermiora, Txoriherrira, Otxandiora, Arratira, Arrankudiaga, Orozko, Durango edo Markinara, Mallabira eta abar...edo Zaldibarrera edo Leinz aldera, Mondragoira, Eibar, Gernika, Bergarara eta abar... Zenbat desberdintasun!

Bada, noski, desberdintasun hoiengainetik, bizkaiera literario bat, liburuetan erabiltzeko egina. Baina hori zer da? Euskera batu bat, konbentzionalki batua eta onartua. Eta ongi dago, eta behar da. Horri eskerrak, bizkaitar guztien artean halako zubi bat egiten da. Guztion artean behar den lokarri, mintzabide edo tresna egiten da.

Bada orain euskaldun guztien artean zubi eta lokarri izango den tresna ere behar dugu, eta hori da, hain zuzen, euskera batua. Nahi eta nahi ez toki bakoitzean egiten den euskeratik zerbait aldendua egon behar du, baina hori euskalki literarioetan ere gertatzen dela esan dugu.

Bai idazteko eta bai eskolan irakatsia izateko ere hizkuntzak nolabait batua egon behar du. Bestela ez da egokia zeregin hoietarako. Eta hemen bi hizkera batukin topo egiten dugu: bata, bizkaiera batua, eta bestea euskera batua. Batak euskalkiaren barruan egiten du batasuna, besteak euskera eta Euskal Herria bere hedadura guztian hartuz.

Orain, euskera eskolara eramanez nahi den une hontan, gauza guzti hauk argi eta garbi ikustea beharrezko da, okerak gerta ez ditzaten.

Nik hiru puntu edo maila ikusten ditut hemen: Lehenbizikoa, tokian tokiko ahozko euskera, herri bakoitzean egiten dena. Hau herritik herrira desberdin da, baina hau bakarrik da herriko euskera. Bigarrena, euskalki literarioa. Hirugarrena, euskera batua.

Nola konbinatu hirurak irakaskintzan? Hau dugu gaur ongi ikusi eta ikasi beharreko puntua.

Bide bat izango da herriko euskeratik hasi, handik euskalki literariora pasa eta gero euskera batura. Hau izango da beharbada bide jatorra eta gomendatzekoa ikasle guztiak toki batekoak eta guztiak euskaldunak direnean eta gainera euskera literarioaren bigarren maila hori dagoenean, zeren beti ez baitago. Euskalki literariorik ez bada, jakina, herriko euskeratik euskera batura pasatu beharko da zuzenean.

Beste bide bat izango da hasieratik euskera batuari lotzea; eta gero, osagarri bezala, euskalki literarioak eta euskera biziaren desberdintasunak erakustea. Bide honek gomendagarri dirudi ikasleak euskaldun ez direnean edo nahasian alderdi guztietakoak daudenean, edo batzuk euskaldun (baina leku askotako euskaldun) eta beste batzuk sortzez euskerarik bat ere edo oso gutti dakitenak direnean.

Hirugarren kasua edo bidea ere oraino eman daiteke: euskalki literariorik hasi eta gero, bai euskera batura eta bai ahozko euskeraren desberdintasunak ere azaltzera pasatzea. Bide hau gomendatzekoa izanen da ikasle guztiak euskalki berekoak direnean eta euskalki horrek bere batasun literarioa egina duenean. Hau ez da beti gertatzen. Ez da ahaztu behar Bonapartek euskeran zortzi euskalki mintzatu bereizten dituela, baina batuak edo literarioak lau bakarrik.

Beraz, zer bide behar den hartu, kasu bakoitzean ikusi beharko da.

* * *

Bide berriak urratzen ari da gaur euskera. Edo hobeki esateko, gaurko problematika berria gaiak berak bere kolokan dakarren muinaren zabaltze eta hazitze bat baizik ez da. Zaharrak barri, dio bizkaitar esaera batek. Funtsean zaharrak dira kezka eta saio hauek, ikusi dugunez.

Bai. Nik esango nuke gaurko bide berriak, Gareitaonaindia jaunak eta hainbeste bizkaitarrek agertutako kezken eta egindako saioen segida eta ondorioak besterik ez direla.

Jakina, beti gertatzen den bezala, gauzek beren eboluzioa ekartzen dute eta honek ere berea izan du. Baina euskera batuaren hazia Garitaonaindia jaunak erein zuen. Eta hazi hartatik etorri da gaurko loratzea.

GARITAONANDIA'TAR BITTOR NEURE GOGOAN

Zaldibar, 1976-III-6

A. Zatarain

Garitaonandia'tar Bittor abadea, soin txikerreko gizon andia! Ezagutu neuean Donosti'ko jesuiten eleizan organista zan. Eztarri ederra euan kantateko.

Donostia'n 1921 urtean agertu zan "Argia" asterokoa; kaleetan "Argia, periodiko berria" oiuegiten euela gogoan dot. Neure aita zanak sortu euan, berak emoten euan dirua, eta berak idazten euan lugintza-gaiak agertuten euen orrialde osoaren erdia baiño geiago, zenbait astetan orrialde osoa bere bai. Don Bittorr asiera-asieratikako laguntzaille izan zan.

"Argia"ren lelengo artezkari edo direttorea Karrera'tar Jesus abade gaztea izan zan. Baiña denpora laburrean izan zan artezkari: gazte-gazterik ill egin zan.

Orduan Garitaonandia ipiñi euen artezkari. Lasterr etorri jakazan kardaruak, buruko-miñak eta drogak. Primo de Rivera generala Espaiña'n aginten jarri zan, eta Gipuzkoa'n bizkaitar bat, Artzadun generala, bermeotarra bera' ipiñi euan "gobernador cívico-militar"; beste iñork batera eduki eztauzan bi kargu orreik bere gaiñ euazan.

"Argia" euskeraz ateratea eragotzi egiñ euan. Don Bittorr eta neure aita zana Artzadun'engana joan zirean. Izketaldi luze baten ondoren' Artzadun bera euskaldun zanari eskerr' "Argia" euskeraz agertuten jarraitzeko baimena lortu euen, baiña baldintza bategaz: astero-astero zati berezi bat agertu bearr euan, erderaz ezekien irakurleak gaztelaniz ikasteko irakurgai batzu: euskerazko berba bakoitzaren ondoan gaztelanizko berbea ipiñi bearr euan.

Biak pozik urten euen gobernadore bikoitzagandik, baiña bildur samar. Gobernadore jaunari poz emotearren edo urrengo astean don Bittorr'ek "Argia"ren aurreko orrialdean Victoria Eugenia erregiñearen erretratu andi bat agertu euan. Eta arpidedun batzuk "Argia" geiago ezeuela artu gura idatzi eutsoen. Don Bittor koittadua zelan asmau ezekiala gelditu zan.

Geroago domeketan Donosti'ko Antigua'ko San Sebastian eleizako meza nagusira joaten nintzan; domekaero organoa don Bittorr'ek jotzen euan, eta meza-ondorean geure etxera bazkalduten etortzen zan. Jatorduan eta bazkalondoan "Argia" izaten zan don Bittorr'en eta neure aitaren berbagaia.

Neure osaba Juan Joxe ezkondu zanean' bazkalondoan don Bittorr'ek berak egindako bertso parebat kantau euan. Lelengo bi lerroak besterik eztodaz gogoan: "Ortiz'tar Mari-Tere / artu dezu emazte...", "Desde que nace el día" zortzi-koaren doiñuagaz.

Ill arte "Argia"ren artezkari izan zan; idatzi bere asko idazten euan, eta izen-ordez beti "Garbi" ipinten euan, Gari-taonandia eta Bittor izenen lelengo letrakaz egindako izena. Bizkaitarra izan arren' beti gipuzkera garbiz egiten euan. Eta alan egin bear bere, "Argia" Gipuzkoa'n bakarrik salduten zan-da.